



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2023ko urriaren 3a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Irene Pujadas

(Sant Just Desvern, 1990)

Irene Pujadas i Farré idazleak bost urtez egin zuen lan *Butxaca* aldizkarian eta *Ara Llegim*, *La Llança* eta *La lectora* komunikabideetan ere idatzi izan du. *Branca* aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen eta gaur egun *Angle Editorial*-en egiten du lan.

Puskak



Egunerokoan edonori gertatzen zaizkionak dakartzate hogeita bat istorio hauek: puskatzen diren jaioberriak, merendolak hil hurrenekin, euli matazak dantzan. Johnny eta Jenny, Jenny eta Johnny, amaren atun-latak eta tomate-poteak, sudur berria duen senar ohia, edan eta elkar larrutzeko geratzen diren señoak herrixketatik ihesi doazen bandalo alegerak.

Irene Pujadasen argitalpenak euskaraz

Puskak (1987) **N PUJ**

Kritikak esandakoak

“... Liburua 21 errelatuk osatzen dute eta literatur genero horren ezaugarriak primeran erabili ditu Pujadasek: testu trinkoak eta motzak dira, aurkezten den egoeran bat-bateko norabide aldaketa bat gertatzen da eta irakurlearengan inpaktua sortzen dute (askotan harridura eta batzuetan zalantza, izua, angustia eta abar). Hala ere, estilo propioa ageriko da eta hainbat planteamendutan originala eta bizia iruditu zait. Ironia, umore beltzaren erabilerak liburu osoaren tonua baldintzatuko du.

... Uxue Apaolazak gibelsolasean aipatzen du lehenengo irakurketa traketsak berrirakurketa dosifikatuagoa eskatu ziola, eta bigarren irakurraldia dibertigarriagoa izan zaiola idatzi du. Bat nator berarekin. Nire kasuan lehenengo irakurraldian liburua amaitzea ez da lan erraza izan. Ez interesik piztu ez didalako, errelatuek irakurraldi bat baino gehiago eskatzen zidatelako baizik...”

Ainhoa Aldazabal Gallastegui / Argia, 2023-02-26

“... Badu Pujadasek inguruari begiratzeko modu berezi bat, ipuingintzaren tradizioan bereziki mamitsua suertatu dena. Lehenik, ipuin gehienek errealitatearekiko halako estrainamendua transmititzen dute. Elementu durdazagarriak daude han eta hemen, narrazioetako giroa arrarotu eta autoreari zernahi egiteko bidea ematen diotenak. Osagai fantastikoekin lortzen den perturbazio geruza horrek ahalbidetzen du umorearen eta absurdoaren aktibatzea.

... Irakurleari helduleku gehiegi ematen ez dizkieten horietako da Pujadas, narrazio laburrez ari garelarik bereziki eskertzekoa dena. Heriotzak toki nabarmena du liburuan, baina esango nuke autorea gehiago ari dela gizakiok existentziaren aurrean dauzkagun ezin eta beldurrez, bizitzaren ostekoaz baino.

... Narrazioei dagokienez, egonezin giroaren atzean dagoena iradoki baino egiten ez dutenak iruditu zaizkit indartsuenak. Etxe bakoitzak..., Purga edo Gaizkijaioa bezalakoek durduza zehaztugabe bat dakarte, ez dagoena erabat pertsonaiei lotua. Narrazioen efektua handiagotzen du horrek. Halaber, pertsonaien harreman lauso eta estrainioetan ardaztutakoak ere iruditu zaizkit iradokitzaileak (Gogoan dut Fanny, Intimitatea, Azken agurra Poupolosi). Horrelako bildumetan ohi den gisan, ordea, badira kamuts gertatu zaizkidanak, batik bat alegoria agerikoegiak entseatzen dituztenak...”

Asier Urkiza / Berria, 2023-03-05

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://ca.wikipedia.org/wiki/Irene_Pujadas_i_Farr%C3%A9

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8742>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8728>

Centre de Cultura Contemporània de Barcelona

<https://lab.cccb.org/es/author/ipujadas/>